



## Ibarrako Piparmin Eguna, «jendetsua»

**EGITARAUA** ▶ Poteoa, bazkaria, jokoak eta musika izan ziren nagusi atzo egun osoan zehar

**HELBURUA** ▶ Herriko «kutsua» duen jaia antolatu nahi izan du Gazte Asanbladak ▶ 7



Askotariko ekitaldiak burutu zituzten egun osoan zehar. N. GARZIA



N. URBIZU

## Euriak busti du Musika Banden alardea

**TOLOSA** ▶ Tolosako Musika Banda, Getaria, Zumarraga eta Sakanako bandekin batera, herriko kaleetan musika barreiatu zuten ▶ 6

**ANOETA** ▶

## Haurren erakustaldia izan da deigarriena Wu Shu Txapelketan

Ezpatekin, haizemaleekin nahiz makilekin egin zuten lana ▶ 6



Lehiaketaen une bat. N. U.



*Arrautzaren Festa*

Arrautzaren Festa-k Tolosa "jaketxe erraldoi" bihurtuko da: tolosar sakaldari nagusiek kalera aterako dituzte beren sakaldeko sekretuak eta menu gozo bat prestatuko dute, protagonista nagusi arrautza duela.

**943 31 86 08** [www.tolosa2015.net/tolosagourmet](http://www.tolosa2015.net/tolosagourmet)

**Ordutegia**  
Bazkaria: apirilak 5, 6, 7 eta 8  
Sartako-ondutegia: 13:30 - 15:00  
Aforak: apirilak 6 eta 7  
Sartako-ondutegia: 20:00 - 22:00  
Lekua: Zerkasua  
**Hartu lekua:**

TOLOSAKO UDALA

ELKADIA

TOLOSA2015

## UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

## Mmmmhh!



**B**adut egunero txokolate dosi eder bat bereganatu gabe lorik egingo ez lukeen lagun bat. Baita lankide bat ere. Bi horiei begira ez dut sinisten txokolatea beste ezeren ordeko denik. Mmmmhh esan eta barrura. Barrura sartu eta mmmmhh esan. Inbi-

dia sentitu izan dut nahi adina jan eta gizentzen ez diren horien aldamenean. Bakoitza den bezalakoa da, eta bakoitzaren metabolismoa ezberdina da... Ai, horrekin kontsolatu behar dugunok jai daukagu.

Urte eta erdiko haur bat baskula gainean hogeita bosgarren marratxoraino irits zitekeenik sinesgaitza egiten zizaidan baina hori ere ikusi dugu. Guraso horiek ez dute barkamenik. Ezta hamar urteko haurraren pisua ehun kilotara iristeko bideak jarri dituzten ho-

riek ere. Guraso guztiek ez dute nonbait euren seme-alaben onena desio. Zer nahi, hura eman omen da gaur egungo gurasoen pekatu handiena baina pekatutik delitura igaro dira batzuek nire ustetan.

Fast food edo janari azkarra deritzen jatxteetan eserlekuak beti beteta daude. Pertsona batek frogia egin nahi izan zuen jantoki hauen kaltea zenbaterainokoa zen gizarteari erakusteko baina uste baino lehenago bukatu behar izan zuen hasi zuen erronka. Hilabete bate-

an gosaldu, bazkaldu eta afaldu horietako lekuetan egin nahi zuen. Egunero. Ez zituen hiru aste baino gehiago egin. Ondozak jota eritexera eraman behar izan zuten. Gauza guztiak bere neurrian esan dezake norbaitek. Ez dakit, ordea, horrelako jantokietan eskaintzen diren produktuek behar besteko neurriak betetzen dituzten.

Gainkarga izateak kargak gaina hartzea esan nahi duela egiaztatuta daukat, beraz, izerditzera noa. Ea zein karga arintzen dudan.

## IRUDIETAN ▶



## Euskal Herriko txokoak igaro ostean, gaur helduko da Korrika Iruñera

**Erredakzioa** ▶ Gaur amaituko da Iruñean Korrika 15. Aste eta erdiz Euskal Herriko txokoetan barrena ibili da, euskararen normalizazioan lanean. Gure eskualdea ez zen salbuespena eta gure errepideetan ere hamaika oina aritu ziren gure hizkuntzaren alde korrika. Ezkerrean, Korrika Tolosara sartzen; ondoren, HITZako kilometroan Jon

Mujika kudeatzailea lekukoarekin. Eskuinean, Olatz Peon alkate ordea, eta Ereite elkartearen kilometroa. Behean, Korrika Ibarrik pasatzen. Alboan, Irurara heldu zen unean, lekukoa Marimi Ugalde alkateak duela. Eurria lagun izan zen ibilbide osoan zehar. Eskualdea utzi zuenean etenalditxo bat izan zuen.

## urteurrena ▶

II. Urteurrena

## Belen Jauregiando Mendia

2005eko apirilaren 2an hil zen, 50 urte zituela

Ama, esazu,  
zergatik ote da, uda nahiz negu,  
beti udaberri zeru aldean,  
gauean,  
oskarbi dagoenean?

Juan Mari, Iker eta Nagore

BEASAIN, 2007ko apirilaren 1a

HILBERRIAK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IRITZIA ▶ JOSE LUIS URDANGARIN (TOLOSALDEA GARATZEN-EKO KUDEATZAILEA)

**T**olosaldeak eskaintza turistikoa oso zabalak du: museoak, ohiturak, festa, herri kirolak, gastronomia, parke naturalak, paisaiak eta ibilbideak. Mezei duten begirunea eman behar zaiona eta planifikaturiko interbentzioa eta gestio sostengarria behar dutenak.

Tolosaldeko Turismoko Plan Estrategikoa egin ondoren, eta jarraipen bat emateko asmoz, Tolosaldeko Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzordea sortu zen, sektore turistikoa zerikusia duten sektore publiko zein pribatuek osatzen duten batzordea eta sektore turistikoa garrantzi handikoak direnekin osatua. Batzorde hau da zein proiektu aurrera eramane behar den erabakitzen duena eta

lehenetsunak jartzen dituenak, kanpotar zein bizilagunei informazioa eskura jarzea, erabiltzaile bakoitzaren beharrak modu erraz eta azkarrean, asetzeko asmoz. Proiektu guztiak bide beretik doaz, garapen iraunkorra lortzea naturan, gizartean eta kulturaren oinarriturik.

Proiektu hauek batzorde honen lanaren eta honek sortu eta osatzen dituen lan mahai berrien ondorio dira. Lan mahai hauek garatu beharreko proiektu bakoitzean hartu beharreko erabakiak adosteko sortutako taldeak dira.

## Turismoa eskualdean

Tolosaldean aurki ditzakegun errekurtsuak oso zabalak dira: antzina arkeologikotik hasi eta errekurtsu natural eta aisi garairako, errekurtsu historiko-kulturalak, gastronomikoak, alojamentuak, ekitaldi eta ospakizun bereziak, merkatuak eta azokak eta abar luze bat.

Tolosaldeko produktu turistikoa artikulatzeko beharra ikusten dugu, informazio guzti hori eskaintzeko beharra eta gure zerbitzuak erabiltzaileei gerturatzea ere. Modu erraz eta era berean dibertigarria izan litekeen erantzun bat erabil-

tzaileen beharretarako. Tolosaldeak informazio bulego bakarra du, Tolosan, bere hiriburuan, gehienbat existitzen diren errekurtsuak sustatzeko eta bisitariak guregana erakartzeko. Baina denbora pasa ahala erantzun beharreko behar berriak sortu dira; ostatuak eskualdean zehar zabaltzen dira, hala nola ibilbide eta bideak, ondarea, eta zer esan ez ostalaritza, zeinek bertako baratzeak, produktuak, kalitate gorenekoak, aintzinako errezetak erabiliz gure gozameneko prestatzen dituenak. Hauek izan dira bisitariari informazioa gerturatzerakoan kontuan hartutako alderdiak, turistari Tolosaldeak eskaintzen duena erakustea eta egonaldia luzatzera bultzatzea.



KORRIKA BATZORDEA







### ***Eskerrik asko guganako konfiantzari eusteagatik.***

*Sinadurek pertsoneri buruzko gauza asko adierazten dituzte. Eta gureek babesa adierazten digute. Konpromisoa. Telefonía mugikorreko gure bezero gehienek Euskaltelengan duzuen konfiantza berretsi duzue migrazio-prozesuan. Orain guri tokatzen zaigu guztia ematea, aurrerantzean ere, zuen babesa izaten segi dezagun.*



**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14-A  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38  
tolosa@tolosa\_redpeugeot.com

*Expert berria*



**hitza** Harpidedunen txokoa

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN  
%5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da  
Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

**Egin zaitez harpidedun!**

► DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA



TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62



Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74



San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46





Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85



osagaiak  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
T O L O S A

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

**CONFORT HIPOTEKA >GO**



**zeinen erosoia**

Kuota murriztuak gehien behar duzunean eta pixkanakako igoera eta ezustekorik gabe amaiera arte.

**Zure bizitza berriari askatasunez ekiteko**

**%20** gutxiago hasierako kuotan, kuota iraunkorreko mailegu baten aldean

Kuoten adibidea:  
Lehen urtean: **558,88 €**  
Hirugarren urtean: **561,42 €**  
Hamabosgarren urtean: **726,26 €**  
Azken urtean: **1.058,03 €**

EBOk 2007ko urtarrilean argitara emandako urtebeteko azken euriborra (%3,921) oinarritzat harturik kalkulatu da adibidea hau, 150.000€-ko mailegu batentzat 35 urtetara, urteko progresioa %2koa izanik (maileguaren bizialdia guztian euribor bera izango dela joz kalkulatu dira kuotak). 36 urtetik beherakoentzat balio du eskaintza honek.

Interes-tasa: **euribor + %0,55**  
Urteko kuota progresioa: %2  
Urteko berrikuspena  
Epea: 35 urte arte  
Irekiera-komisioa: %0,5  
Amortizazio aurreratuaen komisioa: %0  
Kitapen aurreratuaen komisioa: %1

**U.T.B. adibidea: %4,60**



**Villabona - Kultura**

**Apirilak 1 • Igandea 20:00etan**  
**OLAEDERRA**  
**KIROLDEGIAN**



**aukeran**  
dantza taldearen emanaldia



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia  
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

## TOLOSA ▶ MUSIKA

Banden  
alardea  
Triangulon

**N. Urbizu** ▶ Bigarren Musika Banden Alardea izan zen atzo Tolosan. Jotzen aritu ziren, 18:30ean bilduz, eta banda bakoitza alde ezberdinetara joanez. Ondoren, Plaza Zaharrean kontzertua eskaini zuten. Sakanako, Getariako, Zumarraga eta Tolosakoak bildu ziren. Euria egin bazuen ere, musika tresnak halamoduz babestuta atera ziren kalejira egitera. Ondoren, indarbertitzeko, Usabal sagardotegira joan ziren afari legea egitera. N. U.



## ANOETA ▶ KIROLA

Wu shu Txapelketan  
deigarriena, haurrena

Makilekin, ezpatekin nahiz haizemaleekin egin zituzten; gaur binakakoen arteko lau borroka prestatu izango dira



Lorea taldekoak haizemaleekin egindako erakustaldia eta eskuinean borrokan. N. U.

## NEREA URBIZU

Anoetako kiroldegian Gipuzkoako XIX. Wu Shu Txapelketa izan zen atzo. Probinziako txapelketa gain, Espainiako Irekia ere jokatu zuten. Hain zu-

zen, Gipuzkoako txapeldunek Nafarroako, Castelloko, Valentziako, Valladolideko eta Kataluniako klubak aurka jokatu zuten. Antolaketa lanetan Tolosako Indarra Gimnasioa aritu

zen. Ekitaldi berezienen artean Tolosako Indarra taldekoena izan zen: 6 eta 8 urte bitarteko erakustaldia izan zen.

Lehenengo partaideak 15 urte beharreak izan ziren.

## Gaur lau erakustaldi

Gaur neska-mutilen erakustaldiak izango dira 10:30etik aurrera: klub guztiak beraien erakustaldia egingo dute, tartean Munduko Txapelketan domina lortutako Ramon Quina euskalduna izango da.

## IKAZTEGIETA ▶

Olaberriak  
mundialean  
marka berria  
ezarri du

Gema Pascual madrildarraren marka hobetu zuen jazarpenekoan

## ERREDAKZIOA

Leire Olaberria 16. postuan sailkatu zen buruz buruko jazarpenean, baina pozik egoteko arrazoi gehiago du ikaztegiak. Cespa-Eustrak taldekoak Espainiako errekorra hobetu zuen Mallorkan (Herrialde Katalanak). Gema Pascualek lortutako marka hobetu zuen. Errekorra bera garrantzitsua da, baina deigarriagoa da Olaberriak ia sei segundotan ondu duela bere betiko marka onena buruz buruko jazarpenean. Olaberriak 10. postuaren bueltan ibiltzeko asmoa zuen, baina garbi ikusi du zer hobetua badaukala diziplina horretako onenen pare aitzeko.

Finaletik gertu ibiltzea espero zutela esan zuten prestatzaileek, baina urrun samar geratu ziren. Schrach finalera ere pasa zen Leire Olaberria.

## ANOETA ▶

Bai Euskal  
Herriari ekimena  
sortzeko bilera

Anoetan EHNA tramitatzen duten herritarrek bilera batera deitzen dute herriari Bai Euskal Herriari ekimena sortu asmoz. Bilera hau bihar 19:00etan egingo dute, udaletxean bertan.

## TOLOSA ▶

'Eutsi!' film  
euskalduna gaur,  
Leidor aretoan

Tolosako Leidor zineman Anjel Alkain, Asier Ormaza eta Oihana Maritorea aktoreek parte hartzen duten *Eutsi!* film euskalduna ikusteko aukera izango da gaur. Euskaraz izango da eta bi saio izango dira: lehenengoa 19:30ean, eta bigarrena, berriaz, 22:30ean.

## iragarki laburrak ▶

## SALGAI

**Etxebizitza.** Tolosan, Araba etorbidean etxebizitza salgai. 96 m<sup>2</sup> erabilgarri. Dena kanpoaldera. 4 gela, egongel, sukaldaria eta 2 bainugela. 2 balkoierkin. Garajea aukeran. 665 70 33 74.

**Etxebizitza.** Leitzaan, pisua salgai, bizitzin sartzeko prest. 150.000 euro. 686 69 10 87.

**Etxebizitza.** Berrobi auzoan, pisu eraberritua. Bista harrigarriak zezen plaza aldera. Ikusteko modukoa.

Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 608 978 288.

## LANA

**Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33 telefono zenbakira deitu.

**Garbiketa.** Garbiketa, mantenua, gidariak, langileak, sukaldaritza langileak... behar dira lanpostu finkoak betetzeko. 943 29 82 32.

**Suhiltzaileak.** Suhiltzaileak, basozainak, Ertzaintza, udaltzainak.

Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. Informazio gehiago: 943 32 66 63.

**Hezkuntza.** Eusko Jaurlaritza.

Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu: gorputz-Hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza. 943 32 66 63.

**Gidariak.** Gidariak erakunde publikoetarako. Deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

**Harreragileak.** Harreragileak udaletxeetarako. 943 44 48 66.

**Tolosako Udala**

**IRAGARKIA**

HELBURUA: Emeterio Arrese-zan dauden 30 garaje eta Trianguluan dauden 7 garajen besterentzea Zozketa publiko bidez.

PREZIOA: 23.688 eurotik 48.815 eurotara (talde eta ezaugarrien arabera).

FIANTZA: 600 euro.

AURKEZTEKO EPEA: Udako Erregistroan 2007 apirilaren 24 eguna arte 14:00tan.

ZOKKETA: Zozketa eta garaje esleipena ekitaldi publiko batean egingo da interesatuen aurrean.

INFORMAZIOA: Baldintza plegiak eta dokumentazioa interesatuen eskura daude toki hauetan: [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) web orrian eta Udala Erregistroan.

Tolosan, 2007ko martxoaren 29an.

ALKATEA  
Jokin Bildarratz Sorron

AZOKA ▶

Erramu Egunaren aurretik, azkenekoa

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka egunean euria eta ura inposatu egin ziren Tolosan. Ia gehienak ohituta gaude dagoeneko honelako eguraldira; hau dela eta, atzo giro polita ikusi genuen azokako mahaletan.

Erramu eguna berehala dela eta, mahai gehienetan erramuren bat edo beste izan zen, eta guztira, oso ikuskizun polita konposatu zuten saltzaileek.

Eskaintza, erramuez gain, oso betea izan zen; ilarrak, patata berria, eta zainzuriak nobedadeen artean, eta oraindik neguko barazki asko mahaletan; azen, azaloren edo porruen kasu.

Aipatzekoa izan zen ere ziren prezioaren jaitsiera, eskaintzaren igoerarekin bat etorri zena. Atzo 100 eta 70 euro tartean saldu ziren.

Berdura plazako apaingarriko landareen postuetan ere nobedade dezente. Geranioak, geranio hiedra, alegriak edo eta begoniak bes-teen artean.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Begonia	1,20	-
Alegria	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20
Xarbota	4,00	6,00
Txinar krabelina	2,50	-
Siemprevivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-

Bertako produktuak		
Errezil sagarra	0,60	8,00
Kiwi	3,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Erremolabxa	1,50	2,00
Lekak	2,50	3,50
Roblea	1,00	-
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	10,00
Kalabazina	0,72	-
Txikoria	1,00	1,25

Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Arbi morea	4,00	-
Dilistak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Zerba	2,00	-
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Arrautzak	3,50	-
Mermelada	3,00	3,60

IBARRA ▶ GIZARTEA

Lehenengo Piparmin Eguna ospatu dute

Gazte Asanbladak antolaturiko jai honen bitartez herriko kutsua duen jai egun bat antolatu nahi izan dute ibartarrek



Bazkaldu eta gero, preso dagoen Maite Aranalderen hitzak entzun zituzten grabazio baten bitartez. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Ibarran atzo Piparmin Eguna ospatu zuten egun osoan zehar. Eguerdian partean hasi eta gaur arte hainbat ekitaldi antolatu zituzten: poteoa, bazkaria, jokoak, barrikotea...

Eguerdian plazatik abiatu

eta herritik zehar poteoa egin zuten bazkalordura arte. 14:30ak aldera 70 bat lagun bildu ziren Ibarrako Gaztetxean, eta haiek prestaturiko janaria jan zuten.

Bazkaldu ondoren familia argazki atera zuten, eta 17:30ean jokoak egin zituzten plazan.

Horretarako parte-hartzaileak lau taldetan banatu ziren, eta Gazte Asanbladak lau kamiseta egin zituen elkarrengandik bereiztu ahal izateko.

20:00etan Gaztetxean barrikotea egin eta gero gauean, Luhartz taldearekin erromeria egin zuten.

Antolatzaileetako batek azaldu duen bezala, «Gazte Asanbladaren inguruko jendeak antolatu dugu Piparmin Eguna. Ekainean Gazte Festak ospatzen ditugu urtero, aurten 38. urteurrena beteko dute, baina urteak aurrera egin ahal masifikatu egin dira eta beste edozein festa bat dirudite, herri giro hori galdu baitute. Guretzako, Ibarrako gazteen-tzako, egun bat antolatu nahi genuen».

Prestaketak

Horretarako duela hilabete inguru astero bilerak egiten hasi ziren. «Bilera hauetan Gazte Asanbladan parte hartu duten belaunaldi ezberdinetako lagunak bildu gara. Gaztetxeak 14 urte bete ditu aurten eta hasieratik egon ziren lagun batzuk ere lagundu egin digute hau guztia antolatzen».

Egun honetan ere preso duden lagunak gogoan izan zituzten. «Bazkaldu eta gero Maite Aranaldek egindako grabazio bat entzungo dugu, azken batean egun honetan gurekin egoteko modu bat da».

Azkeneko mementuan, ordea, aldaketa bat egin behar izan zuten. «Erromeria Gozategirekin egin behar genuen, baina arrazoi pertsonalengatik ezin izan dute etorri eta kartela aldatu behar izan dugu».

IBARRA ▶ POLITIKA

Ibarraldeko presoei omenaldia egin diete

Aranalde, Altuna, Aramendi, Ijurko eta Mintegiaga omendu zituzten atzo iluntzean

ERREDAKZIOA

Atzo, hileko azkeneko ostirale- ro bezala, presoen aldeko elkarrateratzeak egin zituzten eskualdean eta Ibarran bertako eta inguruko presoei omenaldi berezia egin zitzaizen.

Maite Aranalde ibartarrak eta Haimar Altuna lizartzarrak 2 urte bete zituzten espetxean duela 2 aste. Bestalde, Ekaitz Aramendi eta Eider Ijurkok 5 urte bete zituzten 25ean. Hori dela-eta atzo omenaldi ekitaldi egin zieten.

19:30ean herri sarreran Etxerategi deituta giza katean joan ziren herriko plazara. Bertan bertso bat eskaini zieten bai preso hauei, bai iheslari guztiei ere, eta ondoren Maite Aranaldek bidalitako gutun



Giza katea egin zuten. A. IMAZ

bat irakurri zuten. Jon Mintegiagaren argazki bat ere jarri zuten, apirilaren 5ean bere urtebetetzea dela gogorarazteko. Musika eta dantza ere ez ziren faltatu, txalapartari eta dantzariekin.

TOLOSA ▶ MUSIKA



Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia, Leidor aretoan

N. Garzia ▶ Atzo Leidorren Haur Kantari Jaialdia ospatu zuten Gipuzkoako hainbat ikastetxeetako ikasleek. Oso tara 175 ume aritu ziren lehenengo eta oraingo kantak abesten. Jaialdia 16:30ean hasi eta 19:00ak aldera amaitu zen eta Leidor aretoa erabat bete zen. Haurrek binaka eta taldeka abestu zuten gehienbat, baina bakarlaririk ere izan zen. Besteak beste, Hernani, Villabona, Tolosa, Urnieta, Pasaia, Berrobi, Donostia eta Andoaino haurrak izan ziren atzoko jaialdian. Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdiaren lehen saioa Azkoitia izan zen, hilaren 17an eta atzokoarekin, antolatzaileek amaitutzat eman dute jaialdia. N. GARZIA





**AGENDA** ▶

**DEIALDIAK**

**Alegia.** AHTri buruzko galdeketa egingo dute, plazan eta Kikara taberna ondoan, 09:00etatik 20:30era.

**Anoeta.** Bihar, EHNA tramitatzten duten herritarrek bilera batera deitzen dute herrian Bai Euskal Herriari ekimena sortu asmoz. Bilera apirilaren 2an egingo dute, 19:00ean udelekuan.

**Asteasu.** Ezker abertzaleak 12:00etan argazkia aterako du Andazarraten (euria egin ez gero, frontoian).

**Tolosa.** San Esteban elkarteak urteko asanblada egingo 10:30ean (11:00etan bigarren deialdia) elkartearen bertan.

**Tolosa.** Aurtin Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afaria antolatu dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ikatza, Raku eta Mescalen.

**Tolosa.** Oargik irteera antolatu du Gredos mendikatera Aste Santurako. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 telefonoan.

**Vilabona.** Aukeran dantza taldeak *Bideak* ikuskizuna eskainiko du Olaederra kiroldegian 20:00etan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *Eutsi!* filma euskaraz (azpituiluak gaztelaniaz) emango dute Leidorren: gaur, 19:30ean eta bihar 20:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.  
 Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

**Bihar**  
 Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

**IRRATIA**

**Txolarre irrata**  
 (107.5, 101.2 FM)  
 11:00-14:00. *Hitza* hegana. (Errepikapena).

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Udaberri(a)rekin, dantzak

**TOLOSA** ▶ Dantzari Txiki Egunean hainbat dantza taldek bisitatu zuten herria, haien dantzak eskainiz eta Udaberriren 50. urteurrena ospatuz

**NEREA URBIZU**

**U**daberri dantzari taldeak bere 50. urtemuga ospatzeko ez zuen modu ho-beagorik aukeratu: Dantzari Txiki Egunean bost herrialde-tako dantzariak bildu zituen Tolosan: Arabakoak, bizkaitarrak, nafarrak, lapurtarrak eta gipuzkoarrak. Zehazki, Galduka, Portugalete, Gasteiz, Hendai, Iruñea, Leitzakoak eta Tolosakoak.

Tolosako kaleetan zehar izan ziren dantzatzeko talde ezberdinetan banatuta: Triangulon, Beotibar pilotalekuaren inguruan... Jendea ere erakarri zuten, izan ere, ez zen zaila izan, eguraldia haien alde izan zutelako, bestek beste.

Bazkaltzera joan aurretik Plaza Berrian elkartu ziren denak, Alde Zaharreko kaleetan zehar kalejiran joanda, tartean txistulariak eta trikitilariak zihoaztela.

Arratsaldean ere, 17:00ak aldera saio berri bat egin zuten denek, jende askoren aurrean. Neska eta mutilen arropen kolore desberdinak, arkuak, txin-txarriak zangosagarretatik zintzilik, makilak, txapelak, zapiak, lazoak... Denetarik erabili



Triangulon bizkaitar batzuen saioan. Eskuinean, erabilitako tresnetako bat. N. URBIZU



behar izan zituzten bakoitzak bere saioa egiteko. Han izan ziren, nola ez, dantzetako prestatzaileak, inongo momentuan ezer falta ez zedin.

Udaberri dantza taldeak 50 urte bete ditu, eta atzo erakutsi zuten bezala, urte askorako dituzte dantzariak. Ia berdina ikusten duten hemendik urte batzuetara, gaur dantzariak direnek guraso direnean.



Tolosako dantzari txikienek makilekin alaitu zuten Alde Zaharra. n. u.

**AGURRAK** ▶



**URTE ASKOAN**  
 Ariz (8) eta Asier (2)  
 laixter. Muxu asko zuentzat, Julen eta Iruneren partez.



**URTE ASKOAN**  
 Alazne. Gaur 4 urte.  
 Argazkian bai neska txinbo eta alaia. Eta orain? muxu asko!



**URTE ASKOAN**  
 Agustín Ezeiza (Ibarra).  
 Bihar urteak. Muxuak aitaboa, Naroa eta Marian.



**URTE ASKOAN**  
 Arkaitz Garcariena (Berastegi). Gaur 4 urte.  
 Zorionak familiararen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

**hitza**  
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza Harpidedunen txokoa**

HITZako harpidedunen artean **Astlehenean 16:30ean Beotibar pilotalekuan** jokatuko diren pilota partiduetarako sarrerak zozkatu ditugu! Hauek dira irabazleak:

▶ Juan Manuel Jauregi (Amaroz)  
 ▶ Mari Jose Galarza (Ibarra)

**Arizmendi // Apezetxea**  
 ■ ■ ■ ■ ■  
**TITIN III - GALARZA VI**  
**GONZALEZ - GOÑI III**  
 ■ ■ ■ ■ ■  
**Del Rey - Urberuaga**  
**Alzugarai - Elkoro**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea